

Lan merkatua

# Euskal Herriarekin ez, Frantziarekin bai?

Iparraldeko bilakaera sozioekonomikoak baditu, izan, zantzu positiboak, baina etorkizuna oraindik ere kezkatzeko modukoa da; Seaskako ikasle ohiekin egindako ikerketa baten arabera, gazteen gehiengoak ez du Iparraldean edo Hegoaldean ikasi edo lan egin nahi, Frantzian baizik.

Daniel Udaltz

ALDAKETA izan da Iparraldeko egoera sozioekonomikoaren bilakaeran azken urteetan. Iparraldeko jardura tasak gora egin du, eta %4,22koa da gaur egun; hain zuzen ere, 2009an Euskal Herrian gehien hazi dena da. Eta, jakina, langabeziaren tasak behera egin du. Hala eta guztiz ere, Iparraldeko etorkizuna oraindik ere kezkatzeko modukoa da; hori adierazten dute Seaskan ikasi duten gazteen planei eta asmoei buruz egindako zenbait azterketek.

Seaskan ikasi duten Iparraldeko gazte gehienek nahiago dute Frantzian ikasi edo lan egin, eta Hegoaldearekiko loturarik eza adierazi dute, nahiz eta bertan ere ikas eta lan egin dezaketen. Hori da Gaindegiak, Seaskaren eta Hezkuntek elkartearen laguntzaz, Seaskako ikasle ohiek erantzundako inkesta batean oinarrituta egin duen azterketaren ondorioetako bat. Irailean eman zen jakitera txostena, eta honako helbide honetan dago ikusgai: [www.gaindegia.org/es/informes](http://www.gaindegia.org/es/informes).

## Seaskan euskaraz ikasi duten gazteak

Kolektibo hori denez Iparralde osoan euskaraz ikasi duen bakarra, haren ibilbide soziolaborala oso garrantzitsua da Iparraldeko egitura sozioekonomikoaren garapenerako eta Iparraldearen nortasunerako. Batez ere, Iparraldeko milaka biztanle emigratzera behartuta egon direlako urtetan, lanerako aukerarik ez zegoela eta. Iparraldeko errolda aztertuz gero, eta zehazki 1982tik



XOUSA SIMAL

Ikerketa Gaindegiaren eskutik egin da. Irudian, ikasleak azterteka batetik irteten.

1999ra bitartean Iparraldeko 47.000 euskal biztanlek beren herrialdea utzi behar izan zutela ikus dezakegu, eta 80.000 bertan ezarri zirela. Egoera horren ondorioz, 1999. urtean Iparraldeko biztanleriaren %31 baino ez

Iparraldeko joera sozio-laboralari buruzko inkesta hirugarren zikloko 545 ikasleren artean egin da

zen bertan jaioa eta bertakoen ondorengoa. Beraz, Iparraldeko etorkizunari begira, belaunaldi berriak bertan geratzea lortu behar da ezinbestean, eta bertako gizarte, ekonomia eta lan egitura parte hartzea.

Horregatik du horrenbesteko garrantzia lehen aipatutako erakundeek Iparraldean egindako ikerketak. Ikerketak hirugarren zikloko ikasleak bakarrik aztertu ditu; hain zuzen ere, azken ziklora iritsi ziren haiek, 1.000 bat ikasle ohi. Horieta, bada, 545 elkarrizketatu zituz-

## Hegoaldean gehiago hazi da langabezia Iparraldean baino

Krisi ekonomikoaren ondorioz, Euskal Herriko lan merkatuak kalteak jasan ditu. Dena den, Hegoaldeari Iparraldeari baino gehiago eragin dio krisiak. 2007an, Euskal Herriko langabezia tasa %4,25ekoa zen. Baina 2009ko lehen hiruhilekorako bikoitza zen jada; %8,8, hain zuzen. Eta urtearen amaierarako, tasa hori aise gairidituko dugu. Hala ere, Euskal Herriko langabezia tasari behatzen badiogu, herrialdeen arteko aldeak handiak direla ikusiko dugu. Kontuan hartu behar da gaur egungo krisi ekonomikoak nagusiki kaltetu dituen ekoizpen sektoreak Hegoaldean presentzia handia dutela.

Hala, Gaindegiak landu dituen eta eskura ditugun azken datuek zifra hauek adierazten dituzte, Euskal Herri osoko langabezia tasaren bilakaerari dagokionez: Europar Batasunean, langabeziaren hazkunde tasaren batez bestekoa %1,4koa da; eta Euskal Herrian, berriz, %4,25ekoa. Herrialdeka: Arabak

%6,9ko hazkundea zuen; Bizkaiak, %3,8koa; Gipuzkoak, %3,8koa; Nafarroan Garaiak, %5,17koa; eta Iparraldeak, %0,68koa. Nabarmena da Arabako kasua, langabetuen kopurua laukoiztu egin baita azken urteetan. Gainerako herrialdeek ere joera bera dute, Iparraldeak izan ezik.

Azpirarratzekoa da, baita ere, gazteenen langabezia tasaren bilakaera, %9tik %20ra igo baita. Generoaren ikuspuntutik, krisiaren eraginez nola gizonezkoen hala emakumezkoen langabezia tasak okerrera egin du; dena den, gehiago eragin die gizonezkoek. Bestalde, Euskal Herriko emakumeen langabezia tasa EBkoa baino puntu bat altuagoa da (%9,51koa eta %8,6koa dira, hurrenez hurren), eta Espainiako tasaren erdia (%17,7). Euskal herrialdeen arteko aldea nabarmena da: langabezia tasa txikiena Gipuzkoako emakumeena da, %6,24; altuena, berriz, Nafarroa Garaiko emakumeena, %13,67.

ten. Lortutako emaitzak aztertuta, ondorio hauek atera dira: % 87k bizilekua Iparraldean du (%2k Hegoaldean), baina %61ek Euskal Herriatik kanpora irten behar izan du ikastera. Gehiengoak giza zientziako titulazioak aukeratu zituen. Pentsatzekoa denez, lanean ari diren ia erdiek hezkuntza edo euskal kulturarekin zerikusia duten lanetan dihardute (komunikabideak, etab.).

Gainera, goi mailako titulazioa dutenez, haien maila profesionala batez bestekoarena baino handiagoa da. Gehiengoak bere lurraldean bizi nahi duela onartzen du, eta harekiko duen lotura erraz antzeman daiteke. Hala eta guztiz ere, Hegoaldean ikaslea aukeratu duten pertsonen zenbatekoa aztertuz gero edo Hegoaldean lan egitea beren asmoen artean dago-

en galdetuz gero, argi eta garbi ikusiko dugu gehiengoak nahiago duela Frantzia ikasi edo lan egin.

Ikerketak, ondorioz, oso datu positiboak ematen ditu Seaskaren proiektuari dagokionez, Iparraldeko errealitatean eragina izan baitu. Dena den, zenbait hutsune badaudela ere adierazten du, hala nola gehiengoak Hegoaldearekiko loturarik ez duela eta suspertze sozioekonomikoko jardueretan adituak falta direla.

Hegoaldean lan egitea beren asmoen artean dagoen galdetuz gero, gehiengoak esan du nahiago duela Frantzia ikasi edo lan egin

### Egoera sozioekonomikoaz zenbait datu orokor

Bestalde, Iparraldeko hazkunde ekonomikoak bilakaera positiboa duela dioen tesia sendotzen duten zenbait datu estatistiko jaso ditugu. Euskal Herriko jarduera tasak %0,45eko batez besteko hazkunde positiboa izan du 2007tik 2009ra bitartean, eta Europak, berriz, %0,5ekoa. Zehazki, Euskal Herrian Iparraldeak izan du jarduera tasarik altuena eta bilakaerarik onena. Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, aldiz, aktiboen kopuruak behera egin du azken bi urteetan. Iparraldeko jarduera tasa %4,22 igo da, Arabakoa %2; eta Bizkaikoa, %1,7. Gipuzkoako jarduera tasa, berriz, -%0,7koa izan da; eta Nafarroa Garaikoa, -%0,21ekoa. n



BEASAINGO

# Liburu Azoka

Gemika pasealekuko frontoian

Abenduaren 11n eta 12an (Ostirala eta larunbata)

10:00-13:00 / 17:00-20:00

Abenduaren 13an (Igandea)

11:00-14:00 / 17:00-19:00



Beasaingo udala